

ERRALDOI ETA BURUHAUNDIEN V. TOPAKETA

Jose Luis Insausti Urigoitia



Madalenak 2002

Argazkia: Jose Luis Insausti

Urtero bezalaxe, iaz ere Landare Elkarteak Erraldoi eta Buruhaundien V. Topaketa antolatu zuen Santiago egunean, uztailak 25. Hasierako asmoa topaketa nahiz desfilea eguerdian egitea bazen ere, eguraldi kaskarra medio (izan ere zirimiria izan baikenuen), txolarte batean konpartsa guztiok ibilbide txiki bati ekin genion, gure ikusleak, haur zein heldu asetzearren, eta konpartsa guztien jarrera ezin hobeari eskerrak azalduz. Hori dela eta, bertaratutako konpartsa guztiekin bilera egin ondoren, arratsaldean desfileatzeko proposamena egin zitzaien, betiere eguraldiaren arabera. Guztien baiezkotza erantzuna jaso genuen, birena izan ezik, ezinezkoa zuten eta. Bertan zeudenei desfilea arratsaldeko

bost eta erdietatik aurrera izango zela jakinarazi zitzaien.

Bost eta erdietan abiatu zen desfilea eta ikusleria ikaragarria izan zen. Desfileak bi orduko iraupena izan zuen eta, aurrera egin ahala, ikusle kopurua areagotu egin zen, erraldoiek aurrera egiteko arazoak izanik. Konpartsakideak aho bete hortz geratu ziren Erraldoi eta Buruhaundiekiko zaletasun ikaragarri hura ikustean.

Udaletxera iritsitakoan kanpotik etorritako konpartsek agurrari ekin zioten Nafarroako Jota bat eta Polinesiako Martxa dantzatuz, eta ondoren Orereta-Errenteriako konpartsak guztion aurrean Zentenarioaren doinuaren laguntzaz topaketari eta desfilea-

ri bukaera eman zien, une polit eta hunki-garriak suertatuz.

Une hartan nire gogotik hainbat irudi pasa ziren, bai garai batekoak, bai hurbilagoak. Baina argazki bat geratu zitzaidan, Udaletxea jendez gainezka Erraldoi eta Buruhaundiei agur eginez; hainbatek esan zidan Madalenak bukatzen zirelako pena sentitzen zutela, halakoa zen haur eta helduengan ikus zitekeen alaitasuna!. Eta irudi horrexekin adierazi nahi dut une hartan bizi izandako sentipena.

BURUHAUNDIA

Behin batean, xehetasun txikiz betetako mundu erraldoi batean, kolore biziz apaindurik, dultzainaren eta txistuaren musikaz blai Euskal Herriko hainbat lekutatik gure herrira etorri ziren Madalen-jaien azken egunean Erraldoi eta Buruhaundien V. Topaketan parte hartzera.

Orereta-Errenteriarra paseatzera eta dantzatzera etorritako Erraldoien mundu hartan, ordea, baziren izaki txiki buruhandi batzuk, oso jenio txarrekoak, armaturik eta bertan bisitariei ongietorria ematera hurbildutako ikusle oro egurtzeko prest zetozenak. Zangotzatik, Uharte Arakiletik, Aoizetik, Debatik etorri ziren eta, nola ez, haiekin

batera bertako konpartsa kuttuna, guztiak beren Txistulari eta Dultzainariekin, guztion gozagarri izateko asmoz. Batez ere, txikien gozagarri. Oreretar umeak ez baitziren kikildu halako garaiera eta buru handi pila ikustean; izan ere, batek baino gehiagok aurre egin baitzien.

Joana zara. Datorren urtera arte ezkutatuta zaude. Jai guztietan zehar izutu, ikaratu, kikilarazi, atzetik jarraitu eta jo ondoren, atzo Udaletxean babestu zinen eta umezurtz utzi gintuzun. Une hartan umeek negarrari eman zioten, eta helduoi ere barrena astindu zitzaigun agur esaterakoan.

Ezer esan gabe alde egin zenuen, guztioi bizkarra emanez urtebetez atsedean hartzera. Guk, berriz, goibel, betiko desagertu zinela koan negarrari ekin genion. Zuk atsedean hartzen duzun bitartean, gainerakook sufritu, zure hutsunea sumatu eta gogoan izaten zaitugu. Zure maskurikadak, korrikaldiak eta zure lagun Erraldoien dantzaldiak.

Esker txarrez joan zara eta bakarrik utzi gaituzu, datorren urtean itzuliko zarela kontsolamendua baino ez dugu. Babestu egin zara eta gerizperik gabe utzi gaituzu. Zer egingo dugu goizetan? Noren aurrean egingo dugu korri?. Kaleak triste eta hutsik egongo dira, baina belaunaldi berri batek itzarongo dizu datozen Madalenetan ezagut zaitzan.



Madalenak 2002

Argazkia: Jose Luis Insausti